

MOZIO ARRUNTA, ALTZA-PASAI ANTZO-GALTZARABORDA PROIEKTUA DELA ETA

EH BILDU udal taldeko bozeramaile Reyes Carrere Zabalak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako MOZIO ARRUNT hau aurkezten du, Altza-Pasai Antxo-Galtzaraborda proiektua dela eta.

JUSTIFIKAZIOA

Euskotrenen Altzako geltoki berria 2016ko irailaren 12an jarri zen martxan. Erabilera aurreikuspen handiak egin baziren ere, martxan jarri denetik oso altzatar gutxik erabiltzen dute geltokia.

Adituek onartu dute Altzako geltokiak ezin dituela aurreikusitako helburuak lortu, gaur egun mugatuak dituelako bere gaitasunak: Altza-Galtzaraborda lotura egiten ez den bitartean, mugatuak jarraituko dute gaitasun horiek. Gaur egun Altzako geltokia “cul de sac” bat da eta ez ditu asetzen altzatarren beharrak. Eta kontuan hartu behar da beharrak handiak direla, Euskotren-en gehien erabiltzen den zatia Donostiatik ekialdera doana baita.

Datozen urteetan Euskal Trenbide Sareak egingo duen inbertsiorik handiena metro-pasantea da. Baina hori ez da izango Altzako geltokiak bere gaitasun guztiak garatzeko soluzioa. Hala ere, Eusko Jaurlaritzak ez du aurreikuspen garbirik proiektu honetan: ez hura gauzatzeko datarik, ez diru partidarik.

Bien bitartean, Altzak oso-oso gutxi erabilitako geltoki batekin jarraitzen du eta gainerako donostiarrek baino tren maiztasun okerragoekin.

2013. urtetik, 70 milioi euro inguruko aurrekontua duen Altza-Galtzaraborda adarraren obra-proiektu idatzita dagoen arren, gaur egun ez du Eusko Jaurlaritzaren finantziakompromisorik. Izan ere, Eusko Jaurlaritzak 200 milioi euro Donostia erdiguneko metro-pasantea egiteko erabiltzea erabaki zuenean, Altza-Galtzaraborda proiektua urtetarako kaxoi batean gordeta geratu zen. Zer esanik ez orain, Easo-Mirakontxa zatia berriz lehiaketara atera behar denean eta metro pasantearen irekiera 2024ra arte, gutxienez, atzeratu denean. Altza-Galtzaraborda zatiaren obrak 2020an hasiko zirela adierazi zuen udalbatzar batean Ernesto Gasco jaunak: urtea bukatzen ari da eta argi dago aurreikuspena ez dela beteko.

Beraz, hiri kohesionatuagoa lortze aldera, eta interes orokorraren defentsaren ikuspuntutik, inoiz baino garrantzitsuago da aldarrikatzea Altza-Galtzaraborda trenbidezati berriak metroaren pasabidearen gainkostuak ordaintzeak baino premia eta lehentasun handiagoa duela. Izan ere, Easo-Mirakontxa zatia lehiaketara berriro atera behar denean, une egokia da hiriak azpiegituren arloan dituen lehentasunak berrikusteko. Are gehiago, pandemia garaian, dauden bitarteko urriak non inbertitu inoiz baino ikuspegi sozial handiagorekin erabaki behar denean. Eta beste arrazoi bat dago Altza-

Galtzarborda zatiaren aldeko jarrera hartzeko: gaur egun erabateko adostasun sozial eta politikoa duen egitasmo bat da, erdiguneko metro-pasantea ez bezala.

Horiek horrela, EH BILDU udal taldeak honako mozio arrunt hau aurkezten du:

MOZIOA ARRUNTA

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari, altzatarren eta gainerako donostiarren mugikortasuna hobetze aldera, Altza-Pasai Antxo-Galtzaraborda proiektua gauza dezala lehentasunez.

Donostian, 2020ko azaroaren 6an

Reyes Carrere Zabala
EH Bildu udal taldearen bozeramalea